

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Espainiako kultura-mezenasgoaren lehen legea izango du Nafarroak, % 80 arteko kenkari fiskalekin

*Urriaren 1ean epea zabalduko da kultura-proiektu eta -ekintzak egiten dituzten pertsona nahiz erakundeek 'Mecna' gizarte-intereseko adierazpena eska dezaten*

Jueves, 08 de mayo de 2014

Nafarroako Parlamentuak Kultura Mezenasgoaren Foru Legea onartu du ostegun honetan, eta baita haren Foru Komunitateko Pizgarri Fiskalak ere. Nafarroako Gobernuak sustatu du, era honetako lehen arau bihurtu da Espainian eta sektorearen garapenean gizarte zibilak parte hartzeko pizgarriak ematen ditu.

Ekarpen pribatuen ekarpena kultura-proiektu eta -ekintzetan areagotzeko xedearekin, Estatu guztiko pizgarri fiskal handienak jasotzen ditu, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) % 80 arteko kenkariekin eta % 30 artekoa Sozietate Zergan (SZ). Enpresen kasuan, gainera, ekarpenak ken daitekeen partidaren izaera izango du eta, beraz, dohaintzaren onura emandakoaren % 50 inguru izango da. Ekarpenak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera egin ahalko dira.

Bestalde, legeak mezenasgoko ekintzen onuradun izan daitezkeen pertsona eta erakundeen igoeraren alde egiten du: helbide fiskala Nafarroan duten pertsona fisikoak eta era ohikoan jarduera artistikoak egiten dituztenak; fiskalki helbidea Nafarroan duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak; Nafarroako egoitzak, zentroak eta etxeak, eta erakunde horien federazioak; eliza katolikoa eta Estatu espainiarrarekin lankidetzak akordioak izenpetuta dituzten elizak edo aitorkizunak; Nafarroako administrazio eta unibertsitate publikoak eta haren mendeko erakunde nahiz fundazioak.

Horretarako, garatuko dituzten proiektu eta ekintzek gizarte-intereseko adierazpena lortu beharko dute, 'Mecna' izena hartuko duena. Administrazio eta unibertsitate publikoek antolatutakoek eta babestutakoek automatikoki lortuko dute.

Urtero, adierazpena eskatzeko bi aldi zabalduko dira, urrian eta maiatzean. Hala, mezenasgoko foru-lege horren lehen kanpaina urriaren 1



etik 31ra burutuko da. Ekimenak Nafarroako Kultura Kontseiluak ebaluatuko ditu, eta azken horrek Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuari dagokion adierazpena proposatuko dio. 'Mecna' proiektu eta ekintzen zerrenda abenduaren erdialdera argitaratuko dela aurreikusten da.

Etorkizuneko kultur mezenas eta eragileek prozedura eta baldintzei buruzko oinarritzko informazioa honako webgune honetan topa dezakete: [www.mecna.es](http://www.mecna.es). Foru-legea arauaren barnean garatu ahala, informazioa zabaldu egingo da ('Mecna' gizarte-intereseko adierazpena duten proiektuak nahiz ekintzak; agiriak deskargatzea; izapideetarako loturak eta abar). Etorkizunean, Nafarroako Gobernuaren webguneak funtsen ekarpenak eta haiek erakartzea bideratuko ditu, mikro-dohaintzak, esate baterako.

### **% 80 arteko kenkariak PFEZn**

Foru Legea sortu da pizgarri fiskalak arautzen dituen egungo araudi nahasgarriaren aurrean (Sozietate Zerga, PFEZ, Ondarea, Tokiko Ogasunak...). PFEZn eta SZn gaur egun dauden kenkariak era garrantzitsuan zabalitzeaz gain (haien gainean Nafarroak erabateko eskumena du arautu ahal izateko), legeak funtsak erakartzeko tresna berritzaileak sartzen ditu. Hala, diru-ekarpenez gain, ondasun nahiz eskubideen lagapena edo zerbitzuak doan ematea hartzen dira barnean, adibidez.

Zehazki, kultura-mezenasgoa hiru bide erabiliz egin ahalko da: dohaintzak (ekonomikoak, ondasun edo eskubideenak, edo zerbitzuak doan ematea), erabilera-maileguak (ondasunak, artelanak edo lokalak aldi baterako lagatzea) eta lankidetzaz-hitzarmenak.

Pertsona fisikoen kasuan, PFEZ zergaren kuotatik zergaldi bakoitzean dohaintzan emandako lehen 150 euroren % 80 kentzeko eskubidea izango dute; gainerako zenbatekoek. berriz, % 40ko kenkarirako eskubidea izango dute (hasierako 150 euroen proiektu berari emandakoak edo beste bati).

Horrenbestez, 150 euro ematen dituen partikular bati, Nafarroako Zerga Ogasunaren aurrean 120 euro kenduko dira. 1.000 euro ematen baditu, zenbatekoa 460 eurora igoko da (120 dohaintza emandako lehen 150 eurokin alderatuz –% 8ko kenkaria– eta 340 gainerakoagatik –850 euroren % 40 ). Proiektu batean 150 euro jartzen baditu eta kopuru bera beste batean, lehen 150 euroren % 80ko kenkaria izango du eta % 40koa bigarren proiektuari emandako 150 euroengatik.

Pertsona juridikoei dagokienez, bi motatako onura fiskala jasotzen dira. Alde batetik, mezenasgoan inbertitutako zenbatekoak Sozietate Zergan kengarria den partida izaera izango dute. Eta, gainera, kopuru horiengatik, kuota likidoan % 30eko kenkarirako eskubidea izango dute, % 30ekoa zergaldi bakoitzeko lehen 300 eurorako, eta % 20koa hurrengoetarako.

Beraz, % 20ko karga duen tipo eraginkorreko enpresa bati, eta 3.000 euro dohaintzan ematen duena, Ogasunean 1.230 euroko kenkaria izango du, haietatik 600 Sozietate Zergaren bere deklarazioko zerga-oinarrian izandako kenkariagatik eta 630 kuotan izandako kenkariagatik (90 dohaintzan emandako lehen 300 eurori aplikatutako % 30i dagozkionak eta 540 gainerako 2.700i aplikatutako % 20gatik)

Gainera, gauzazko dohaintzen kasuan, PFEZ zergatik eta dohaintza-emaiaren errenta kargatuko duen Sozietate Zergatik salbuetsita izango dira, aipatutako dohaintzetan agerian geratuko diren ondare-gehikuntzak eta errenta positiboak.